# ARBIZUKO XXIII. DUATLOIA

*2020ko Martxoaren 21ean, Larunbata.*

*Sabado 21 de Marzo del 2020.*

**NAFARROAKO DISTANTZIA MOTZEKO DUATLOI TXAPELKETA**

CAMPEONATO NAVARRO DE DUATLON CORTO



Arbizuko Udala

# AURKIBIDEA


1. ANTOLAKUNTZA

2. PROGRAMA

3. IBILBIDEEN AZALPENA

    3.1. OINEZKOEN LASTERKETA

    3.2. OINEZKOEN LASTERKETA PLANOA

    3.3. TXIRRINDULARITZA LASTERKETA

    3.4. TXIRRINDULARITZA LASTERKETA ZIGOR EREMUA

    3.5. TXIRRINDULARITZA PROBAKO PLANOA

    3.6. OINEZKO LASTERKETA

4. TRANTSIZIO GUNEA

5. EDARI HORNIDURA

6. MAILAK

7. PARTE-HARTZAILEAK

8. IZEN EMATEAK

9. MATERIAL KONTROLA

10. ARAUTEGIA

    10.1. LASTERKETA BERTAN BEHERA UZTEKO ABLDINTZAK

11. MOTXILAK UZTEKO TOKIA

12. SARIAK


*2020ko Martxoaren 21a*
*21 de Marzo de 2020*

# 0. SARRERA

2020ko Martxoaren 21ean jokatuko den lasterketa hau **Arbizu** herrian lehiatzen da baina ibilbideak beste bi herri hartzen ditu bere gain, **Lizarraga** eta **Etxarri Aranatz.**

**Lasterketa hau Nafarroako distantzia motzeko Duatloi Txapelketan sartzen da.**

*La carrera, que se disputará el 21 de marzo de 2020, se disputa en la localidad de **Arbizu**. Además en su trayecto incluye dos pueblos más, **Lizarraga** y **Etxarri Aranatz**.*

***Esta carrera entra en el Campeonato Navarro de Duatlón de corta distancia.***

**ADI!**

**TXIRRINDULAN EZIN DA GURPILARI LOTUTA JOAN!!**

**NO DRAFTING!!**

# 1. LASTERKETA MOTAK / *OPCIONES DE COMPETICIÓN*

## 1.2. BETIKO IBILBIDEA / *CIRCUITO CLÁSCIO*

Ibilbide honetan, maila guztiek parte hartu dezakete kadeteek izan ezik.
Todas las categorias escepto cadetes.

- **DISTANTZIAK:** 8KM / 32KM / 4KM

## 1.2. IBILBIDE HERRIKOIA ETA KADETEAK/ *CIRCUITO POPULAR*

Ibilbide honetan, maila guztiek parte har dezakete.
Todas las categorias

- **DISTANTZIAK:** 4KM / 16KM / 2KM

## 1.3. PARATRIATLETAK/ *PARATRIATLETAS*

- **DISTANTZIAK:** 4KM / 16KM / 2KM

## 1.4. ERRELEBOAK / *RELEVOS*

Binakako froga da honakoa eta bitako batek korrika eta besteak bizikletaz eginen ditu distantziak.
Prueba en parejas, un@ de l@s comopnentes a pie y el/la otr@ en bici.

- **DISTANTZIAK:** 8KM / 32KM / 4KM

## 2. PROGRAMA

**12:00-15:00** dortsal banaketa. / reparto de dorsales.
**14:00-15:15** material kontrola trantsizio gunean. / control de material en AT
**15:20** Trantsizio gunearen itxiera. / cierre AT
**15:25** irteerarako dei egitea. / camara llamadas.
**15:30** emakumezkoen proba hasiera. / inicio prueba femenina.
**15:35** gizonezkoen proba hasiera. / inicio prueba masculina
**15:45** kadete, paratriatletak, erreleboak eta herrikoien proba hasiera. / inicio prueba cadetes, paratriatletas, relevos y populares.
**18:30** sari banaketa. / entrega de premios.

## 3. IBILBIDEEN AZALPENA / *EXPLICACIÓN DE RECORRIDO*

### 3.1. OINEZKOEN LASTERKETA / *Carrea a pie*

**OINEZKO LASTERKETA: *herriko enparantzaren*** alboan dago irteera, udaletxe aurrean, ***Kale Nagusian***. Bertatik herrian barrena gorantz eginen da eta ***Lizarragaranzko bidea*** hartuko da. Autobidea azpitik zeharkatuko da eta errepide nazionaletik jarraituko du lasterketak. **Arbizuko Kanpin parean** 180 graduko buelta emanen da eta herrirantz itzuli beharko dute. **Arbizu herrian** sartzean, ***Kale Nagusitik*** enparantzara iritsi baino lehen eskuinerantz dagoen ***Uhalde kalera*** sartuz. Uhalde kaletik Kattuka haur eskola ondoko zubirantz joko dute ***Akerruntza kalera*** sartuz. Akerruntza kale guztia zeharkatuko dute eta **Iruñeako etorbidea**, errepide nazionala parez pare aurkituko dute. Orduan, Ezkerretara bira eginen da eta ***Fernando Urkia*** kalean herrirantz joko dute Kale Nagusian berriz ere sartuz udaletxera iritsi. Ibilbide honek denetara **4km** ditu, beraz bi itzuli eginez 8km betetzen dira

***Carrera a pie:*** *la salida está junto a la plaza del pueblo, frente al Ayuntamiento, en Kale Nagusia. Desde allí se ascenderá por el pueblo y se tomará el camino hacia Lizarraga. La autopista se cruzará por debajo y la carrera continuará por la carretera nacional. A la altura del Kanpin, de Arbizu, se dará una vuelta de 180 grados y se tendrá que volver hacia el pueblo. Entrando en el pueblo de Arbizu. Antes de llegar a la plaza, se hara un giro a la derecha para entrar a Uhalde Kalea. Desde la calle Uhalde se dirigirá hacia el puente junto a la escuela infantil Kattuka y se dirigirá a la calle Akerruntza. Recorrerán toda la calle Akerruntza y encontrarán de frente la avenida Iruñeako etorbidea, la carretera nacional. Entonces girará a la izquierda y en la calle Fernando Urkia se dirigirán hacia el pueblo entrando de nuevo en la Kale Nagusia hasta llegar al Ayuntamiento. Este recorrido tiene un total de 4 km, por lo que con dos vueltas se cubren 8 km*

## 3.2. OINEZKOEN LASTERKETA PLANOA/ Plano de la carrera a pie




**<u>DENBORA MUGA:</u>**

Bi itzuliak egiteko gehienez 40 minutu izango dituzte duatletek.

***Oharra: kadeteek, paratriatletek eta ibilbide herrikoia eginen dutenek bira bakarra eginen dute.***

***<u>LÍMITE TEMPORAL:</u>***

*Los duatletas dispondrán de un tiempo máximo de 40 minutos para realizar las dos vueltas.*

***Nota: los cadetes, paratriatletas y quienes realicen un recorrido popular realizarán una única vuelta.***

## 3.3. TXIRRINDULARITZA LASTERKETA

Oinezkoen lasterketaren lehenengo partziala amaitu ondoren, txirrinduak hartuko dira Boxetatik. Kale Nagusitik barrena Lizarragako bidea hartuko da. Katea (lasterketako punturik gorena, 750m) igotzen hasiko dira. Bertara iristean, eskuinera joko dute NA-120 errepidea hartuz, Lizarraga eta Etxarrirantz. Bertako glorietan eskuinera hartuko dute Arbizurantzko norabidean N-240 errepidea hartuko dute. Arbizuko kiroldegi parean dagoen bidegurutzea eskuinera hartuta, Fernando Urkia barrena joanen da ondoren berriz eskuinera hartuz Baxerri tabernatik gora San Jaungo ermitaruntz. Bertan, aurrera egin eta AUTOBIAKO ZUBI gainetik ezkerretara hartuko da berriz ere katerako bidea hartuz. Beste itzuli bat emanen da eta honekin bigarren partziala bukatutzat emanen da.

Una vez finalizado el primer tramo de la carrera a pie, se tomarán las bicicletas desde los Boxes. A través de la Kale Nagusia se tomará el camino de Lizarraga. La cadena, (punto más alto de la carrera, 750m) comienza a subir. Una vez allí, girarán a la derecha y tomarán la NA-120 hacia Lizarraga y Etxarri. En la glorieta girarán a la derecha y tomarán la N-240 en dirección a Arbizu. Tomando a la derecha el cruce situado frente al polideportivo de Arbizu. Por la calle Fernando Urkia se dirigirá de nuevo a la derecha, subiendo por el bar Baxerri hacia la ermita de San Juan. En ella se

avanza y desde el puente de la autovía se vuelve a girar a la izquierda tomando el camino denuevo hacia la cadena. Se dará otra vuelta y con ella se dará por finalizado el segundo parcial.

**Límite temporal:**

2 horas y 10 minutos como máximo desde el inicio de la carrera

**Nota: los cadetes, paratriatletas y quienes realicen un recorrido popular realizarán una única vuelta.**

### 3.4. TXIRRINDULARITZA LASTERKETA ZIGOR EREMUA/

### Zona de penalización de la carrera a bici.

Bi minutu gelditu beharra dago gurpilean joateagatik.

**Lehenengoa:** San Juan ermita pasatu eta Autobideko zubia pasa ondoren. **Bigarrena**: Etxarriko autobia zubi gainean.

Hay que parar dos minutos por ir en rueda.

**Primera:** tras pasar la ermita de San Juan y el puente de la Autovía.

**Segundo:** autovía de Etxarri sobre puente.

## 3.5. TXIRRINDULARITZA PROBAKO PLANOA/ PLANO DE LA PRUEBA CICLISTA

**IRUDIA 1 TXIRRINDULARITZA FROGAREN PROFILA** / PROFIL DE PRUEBA CICLISTA



**IRUDIA 2 TXIRRINDULARITZAKO IBILBIDEA/** *RECORRIDO PRUEBA CICLISTA*



### 3.6. OINEZKOEN LASTERKETA / *CARRERA A PIE*

Txirrinduak utzi ondoren, ,hasierako oinezko zirkuitoari itzuli bat eman behar zaio, 4km egiteko. Honekin **Arbizuko Duatloia** bukatutzat emanen da.

**DENBORA MUGA:**

Lasterketa hasten denetik gehienez, 2 ordu eta 35 minutu izango da azken partziala bukatzeko.

***Oharra: bigarren oinezko lasterketan kadeteek eta herrikoek 180º-ko bira emango dute pibotean autobidetik gertu dagoen rotonda baino lehen, gainontzeko ibilbidea berdina da, 2km guztira.***

Tras dejar las bicicletas, hay que dar una vuelta al circuito peatonal inicial para recorrer 4km. Con ello se dará por finalizado el **Duatlón de Arbizu**.

**Límite temporal:**

El tiempo máximo desde el inicio de la carrera será de 2 horas y 35 minutos para finalizar el último parcial.

**Nota: en la segunda carrera a pie cadetes y populares darán un giro de 180º en el pivote antes de la rotonda cercana a la autopista, el resto del recorrido es igual, 2km en total.**

## 4. TRANTSIZIO GUNEA / AT



## 5. EDARI HORNIDURA/ *SUMINISTRO DE BEBIDAS*

Helmuga ondoan eta katean ura eskainiko da. Lasterketa bukatu ondoren plazan edo Aldabide Elkartean.

Helmuga ondoan eta katean ura eskainiko da. Lasterketa bukatu ondoren plazan edo Aldabide Elkartean, eguraldiaren arabera.

Junto a la meta y en cadena se ofrecerá agua. Una vez finalizada la carrera en la plaza o en la Sociedad Aldabide.

Junto a la meta y en la cadena se ofrecerá agua. Una vez finalizada la carrera en la plaza o en la Sociedad Aldabide, dependiendo del tiempo.

## 6. MAILAK / *CATEGORIAS*

Federazioak agintzen duenaren erara,

Según las indicaciones de Federación.

## 7. PARTE HARTZAILEAK / PARTICIPANTES

Gehienez ere 150 partaide onartuko dira. Kadete eta Juniorrak kontuan hartu gabe. Hauetatik gehienez 60 izango dira distantzia herrikoian.

Se admitirán un máximo de 150 participantes. Sin tener en cuenta a cadetes y Junior. De ellos, un máximo de 60 serán a distancia popular.

## 8. IZEN EMATEAK / INSCRIPCIONES

**Otsailaren Xtik Martxoaren 16ra**

***Desde el X de Febrero hasta el 16 de Marzo.***

https://web.rockthesport.com/login

Dokumentu hau aurkezten den egunean bertan irekitzen da epea.

Fecha: Comienza el mismo dia que se publique el presente documento.

**AUKERAK/** OPCIONES**:**

| | |
|---|---|
| **BETIKO IBILBIDEA /** CLASICA | **8 Km / 32 Km /4 Km** |
| **ERRELEBOAK/** RELEVOS | |
| **IBILBIDE HERRIKOIA ETA KADETEAK/**POPULAR Y CADETES | **4Km /16Km /2Km** |
| **PARATRIATLETAK/** PARATRIATLETAS | |

*2020ko Martxoaren 21a*
*21 de Marzo de 2020*

**PREZIOA** /PRECIO

**FEDERATUAK:** 15€ Martxoaren 1a arte, 20€ ondoren.

**FEDERATU GABEAK:** 20€ Martxoaren 1a arte, 25€ ondoren.

**Erreleboak (bikoteak):** 30€ Martxoaren 1a arte, 40€ ondoren, eta 5€ gehiago ez federatu bakoitzak.

***Ohar garrantzitsua:*** baja hartzekotan ez da ordaindutako dirua bueltatuko, bai ordea antolakuntzak froga 24 ordu lehenago bertan behera uzten badu.

**PARATRIATLETAK:** Arbizuko XXIII. Duatloiaren antolatzaileak paratriatleten partaidetza errazteko konpromezua hartzen du, beti ere beraien beharrak betetzeko baliabideak dituen bitartean. Hau dela eta partaideei Nafarroako triatloi federazioarekin harremanetan jartzeko eskatzen zaie mzubill@hotmail.com helbidean, partaidearen beharrak jasotzeko eta dagokion neurriak hartzeko.

**Federad@s:** *15€ hasta el 1 de marzo, y después 20€.*

**No federad@s:** *20€ hasta el 1 de marzo, y después 25€.*

**Relevos (parejas):** *30€ hasta el 1 de marzo, y después 40€.* Tendrán que pagar 5€ más los NO FEDERADOS

**Nota importante:** en caso de baja no se va a devolver el dinero pagado, si en cambio si la organización decide suspender la competición 24h antes.

**PARATRIATLES:** XXIII edición del Duatlón de Arbizu. El organizador del Duatlón se compromete a facilitar la participación de los paratriatletas, siempre y cuando disponga de medios para cubrir sus necesidades. Por ello, se solicita a los participantes que se pongan en contacto con la Federación Navarra de Triatlón en la dirección mzubill@hotmail.com para recoger sus necesidades y tomar las medidas oportunas.

*2020ko Martxoaren 21a*
*21 de Marzo de 2020*

## 9.MATERIAL KONTROLA / CONTROL DE MATERIAL

Kronometraia antolakuntzak materialaren kontrola egitean dortsalak bueltatzea derrigorrezkoa izanen da. Erreleboka aritzen diren partaidek txipa eramango dute eta honakoa bueltatzea derrigor izanen da.

Partaide guztiak pasatu behar dute material kontrola txapelketa aurretik. Kontrola epaileek egingo dute trantsizio leku sarreran. Kontrola proba baino ordubete lehenago hasiko da eta 15´ lehenago bukatu. Bikoteka parte hartuko dutenak biek batera pasa beharko dute kontrola. Trantsizio gunean sartzeko derrigorrezkoa da nortasun agiria edo federazioko lizentzia argazkiarekin aurkeztea. Bakarrik delegatu teknikoak, arbitro epaileak eta trantsizio guneko arduradun ofizialek utziko dute bertara sartzen. Trantsizio gunetik materiala ateratzeko, azken duatletek helmuga pasa ondoren, derrigorrezkoa da nortasun agiria edo federazioko lizentzia argazkiarekin aurkeztea antolakuntzako arduradunari. Eta bizikletako dortsala ere, oraindik bertan itsatsita erakutsi beharko da.

Trantsizio gunea 18:15etan itxiko da, ordu honetatik aurrera antolakuntza ez da arduratuko bertan gelditzen den materialaz. Duatletaren gauzak bizikletaren eskuineko aldean jarriko dira (aurretik begiratuta), Boxetan daude denbora guztian. Trantsizio gunean lasterketarako behar diren gauzak bakarrik utziko dira, besteak aldagelan.

**DORTSALAK**

Dortsal bakarra emanen da bere 4 kateorratzekin. Parte-hartzaileek euren gomazko zinta ekarri beharko dute dortsala jartzeko. Dortsala zintan erantsirik jarri beharko dute eta ikus daiteken lekuan jarri beharko dute. ***Oinezko lasterketan <u>bularraldean</u>*** eta ***Txirrindula lasterketan <u>bizkarraldean</u>***. Horrez gain bizikletarako dortsala, bizkletaren "tijan" eraman beharko dute.

La organización al hacer el control de material pedira que se devuelvan los dorsales obligatoriamente. Ene l caso de los atletas que compitan a relevos, se les pedira el Chip.

Todos los participantes deben pasar el control de material antes del campeonato. El control lo realizarán los jueces a la entrada del lugar de transición. El control comenzará una hora antes de la prueba y finalizará 15 'antes. Los participantes por parejas deberán pasar el control conjuntamente. Para entrar en la zona de transición es obligatorio presentar el documento de identidad o la licencia federativa con la fotografía. Sólo el delegado técnico, el árbitro y los responsables oficiales de la zona de transición permitirán el acceso. Para sacar material de la zona de transición, una vez pasada la meta por los últimos duatletas, es obligatorio presentar el documento de identidad o la licencia federativa con la foto al responsable de la organización. Y también el dorsal de la bicicleta, donde aún habrá que mostrarla puesto en la tija.

La zona de transición se cerrará a las 18:15 horas, a partir de esta hora la organización no se hará cargo del material que queda en ella. Las pertenencias del Duatleta se colocarán en el lado derecho de la bicicleta (mirando a esta desde el frente), están todo el tiempo en los boxes. En la zona de transición sólo se dejarán las cosas necesarias para la carrera, las demás en el vestuario.

**Dorsales**

Se administrará un único dorsal con sus 4 inperdibles. Los participantes deberán traer su cinta de goma para colocar el dorsal. Deberán colocar el dorsal adosado a la cinta y colocarlo en el lugar visible. Carrera a pie en tórax y carrera en bicicleta en espalda. Además, deberán llevar el dorsal para de la bicicleta en la "tija".

## 10.ARAUTEGIA / REGLAMENTO

1. Arbizuko XXIIi. Duatloia Arbizuko udalak antolatzen du, Sakanako Mankomunitatea eta herriko kirol taldeen laguntzarekin.

2. Boxak 14:00etan zabalduko dira eta 15:15etan itxiko dira.

3. Dortsal banaketa 12:00tatik 15:00etara izango da udaletxean.

4. Bizikletako segmentuan kaskoa derrigorrezkoa da eta 2020ko bizikleta araudiaren araberakoa. Beste partaideekin gorde beharko den distantzia 10m da. Arbizu herritik kanpoko errepideak trafikoari irekita daude beraz zirkulazio kodea bete beharko da.

5. Frogak irauten duen bitartean partaideek ezin dute kanpoko laguntzarik jaso, ezta ibilgailuen atzetik ibili ere ez. (Gutxienez 35m)

6. Parte-hartzaileak istripua edukiz gero, antolatzaileek ez dute inongo erantzukizunik izango.

7. Zerbitzu medikuak egongo dira **OLMO**ren eskutik.

8. Korrikalariek, izena ematen dutenean, ibilbidea ezagutu beharko dute eta araudia onartu.

9. Partaide guztiek Nafarroako Triatloi Federazioko epaileen esanak beteko dituzte, arautegi hau betetze aldera.

10, Antolakuntzak bere gain hartzen du proba aldatu, laburtu edo bertan behera uzteko ahalmena, Federazioko eta Foruzainen arduradunekin batera.

1. La XXIII edición del Duatlón de Arbizu lo organiza el Ayuntamiento de Arbizu, con la colaboración de la Mancomunidad de Sakana y los equipos deportivos de la localidad.

2. Los boxes se abrirán a las 14:00 y se cerrarán a las 15:15.

3. El reparto de dorsales se realizará en el Ayuntamiento de 12:00 a 15:00 horas.

4. En el segmento de bicicleta el casco es obligatorio y se ajusta a la normativa ciclista de 2020. La distancia que habrá que guardar con los demás participantes es de 10 m. Las carreteras fuera de la localidad de Arbizu están abiertas al tráfico, por lo que se deberá cumplir el código de circulación.

5. Durante el transcurso de la prueba los participantes no podrán recibir ayuda externa ni circular detrás de los vehículos. (Mínimo 35m)

6. En caso de accidente de la persona participante, la organización quedará exenta de responsabilidad.

7. Habrá servicios médicos de la mano de OLMO.

8. Cuando los corredores se inscriban, deberán conocer el recorrido y aprobar el reglamento.

9. Todos los participantes cumplirán las prescripciones de los Jueces de la Federación Navarra de Triatlón, a efectos del cumplimiento de este Reglamento.

10, Organización asume la facultad de modificar, acortar o suspender la prueba junto con los responsables de la Federación y de la Policía Foral.

*2020ko Martxoaren 21a*
*21 de Marzo de 2020*

## 10.1. LASTERKETA BERTAN BEHERA UZTEKO BALDINTZAK / Condiciones para la suspensión de la carrera

Aurreko urteetan izan ditugun iragarpen klimatikoak aintzat hartuz, parte hartzaileen segurtasuna eta osasuna ahal den heinean bermatzeko honako erabaki hauek hartu ditugu:

1. Eguerdiko 12tan 10º edo gutxiago badago derrigorrezkoa izango da arropa luzea (termikoa) proban eramatea. Material kontrolean epaileak arduratuko dira puntu hau betetzen dela.
2. Eguerdiko 12tan 5º edo gutxiago badago eta prezipitaziorik baldin badago **proba bertan behera** geratuko da.
3. Eguerdiko 12tan 10º eta 5º artean badago eta prezipitaziorik balego, **antolakuntza eta epaileen artean erabaki**ko da ibilbidea laburtu edo aldaketaren bat egingo den. Lasterketa hasi aurretik erabakiaren berri denboraz emanen da.
4. Zinez eskatzen da arropa gordetzeko zerbitzua erabiltzea, batez ere prezipitazioa badago, helmugan bertan dago eta arropa lehorra eta toalla bat bertan edukitzea denontzat onuragarria da.
5. Partaideei bidaia eta prestaketa guztia aurrezte aldera, aurreko egunetan ikusiko balitz klimaren iragarpena, froga egiteko guztiz kontrako baldintzetan egongo dela, 24 ordu baino lehenago abisatuko zaie partaideei froga bertan behera geratuko dela. Webgune hauetara jo beharko dute: http://arbizu.eus/ eta https://www.navarratriatlon.com/

Teniendo en cuenta las predicciones climáticas de años anteriores, se han tomado las siguientes decisiones para garantizar en la medida de lo posible la seguridad y salud de las personas participantes:

1. Si a las 12 del mediodía hay menos de 10º será obligatorio llevar ropa larga (térmica) a prueba. En el control de material serán los jueces los encargados de velar por el cumplimiento de este punto.

2. Si a las 12 del mediodía hay menos de 5º y hay precipitaciones se suspenderá la prueba.

3. Si se encuentra entre 10º y 5º a las 12 del mediodía y hay precipitaciones, se decidirá entre la organización y los jueces si se va a acortar el recorrido o se va a realizar alguna modificación. Antes del comienzo de la carrera se informará de la decisión con tiempo.

4. Se pide sinceramente que se utilice el servicio de guardarropa, sobre todo si hay precipitación, está en el propio destino y mantener la ropa seca y una toalla allí es beneficioso para todos.

5. Con el fin de ahorrar a los participantes todo el viaje y la preparación, si en los días anteriores se observara una predicción del clima en condiciones totalmente adversas para la realización de la prueba, se avisará a los participantes antes de 24 horas de la cancelación de la prueba. Deberán dirigirse a las siguientes páginas web: http://arbizu.eus/y https://www.navarratriatlon.com /

*2020ko Martxoaren 21a*
*21 de Marzo de 2020*

## 11.DUTXAK ETA MOTXILAK UZTEKO TOKIA / DUCHAS Y COONSIGNAS

**Dutxak eta aldagelak** Arbizuko kiroldegian.

**Motxilak** uzteko, zaindutako gune bat egonen da udaletxeko BATZAR GELAN.

**Duchas y vestuarios:** Polideportivo de Arbizu.

**Consignas para dejar las mochilas.** Habra un lugar habilitado ene l ayuntamiento “Batzar Gela”.

## 12.SARIAK

**BETIKO IBILBIDEA**

1. 100€ + TXAPELA (G/E)/ 100€ + trofeo
2. 75€ + GARAIKURRA (G/E) 75€ + trofeo
3. 50€ + GARAIKURRA (G/E) 50€ + trofeo

Errelebotan, (G-G; E-E; E-G), eta paratriatletak (G/E) **herriko produktuak** ARBIZU, LAKET eta FLORES-en eskutik.

En relevos, (H-H; M-M; M-H), y paratriatletas (H-M) **productos locales** po parte de Arbizu, Laket y Flores.

**DISTANTZIA HERRIKOIA** / DISTANCIA POPULAR

1. Garaikurra (G/E) / trofeo (H-M)

***Oharra:*** *Laguntzaileen eskutik sari gehiago lortzen badira, aldez aurretik jakinaraziko da nola banatuko diren.*

***Partaide guztiei, DORTSALA BUELTATZERAKOAN txistorra banatuko zaie.***

**Nota:** si se obtienen más premios de la mano de los colaboradores, se informará previamente de cómo se repartirán.

A todos los participantes se les repartirá txistorra a la hora de **DEVOLVER EL DORSAL**

ANTOLATZAILEA/ ORGANIZADOR

***ARBIZUKO UDALA***

**Adeitasunez, Atentamente**

**Arbizuko udala**

*2020ko Martxoaren 21a*
*21 de Marzo de 2020*